

## Ihesi

URKO APAOLAZA

Euskal Herria ezagutuz: **Sarria (Araba)**

4.500 kilo eta ia bost metro luze ditu Arlobiko megalitoak. 2004an aurkitu zuten eta Euskal Herriko handienetakoa da. Egun, errestauraturik, Gorbeia Parke Naturala zaintzen du Arlobiko lepotik.

Pagadia bukatu eta larrea hasten den lekuan dago harria. Atzean, Oderiaga mendia.



# Arlobiko menhirra Gorbeiaiko beste erraldoia

Historiaurreko aztarnak ez dira falta Gorbeian. Paleolitoko gizakien arrastoak aurkitu izan dira hainbat kobazulotan eta megalitoak ere ugari dira. Hamar bat trikuharri daude inguruan, horietako asko loturik daude artzain sarioekin. Baina hemen ez da ezer apartekorik esan. Gorbeiak aparteko zerbait badu, menhirrak dira.

Iturralde y Suitek 1894an lehen menhirra ikertu zuenetik, hamarnaka gehiago aurkitu dira Euskal Herrian, baina gehienak ekialdeko lurraldeetan pilaturik daude. Horregatik, harrigarria da hainbeste menhir topatzea Gorbeian. Azkena 2004an aurkitu zuten, Arabako par-

tean, Sarrian. Hiru puskatan hondaturik zegoen harrizarra, eta errestauratu ondoren, Arlobiko lepoan jaso dute berriro, aurkitu zuten lekutik metro gutxira.

Paseo ederra eginez iritsi liteke bertara. Sarriako Parketxeko aparkalekutik pista bat abiatzen da Baias errekarri kontra eginez. Bide lau basoetan doa gehienez, eta gauduaren zintzarriek musika atsegina jartzen dute. Hainbat zubi eta etxe pasa ostean Arlobiko zubira iristen da pista, leku horretan batzen da Baiasekin Padrobaso erreka. Gogoratu izen horrekin. Pixka bat aurrerago, mendian gora egiten duen beste bide batek eramaten du zuzenean

Arlobiko muinora. Haren atzean dago erraldoi bakartia.

## Itzal luzeko monolitoa

Ez zen erraz aurkitzekoa. 2002 urtean, ingurua sasitik garbitu zutenean, harriaren puskak agerian geratu ziren. Inor ez zen ohartu ordea. Bi urte geroago lagun batzuek aurkitu zuten monumentua eta Arabako Arkeologia Museoa ondare arkeologiko izendatu zuen. Parketxera eraman zituzten harri puska guztiak, eta han, burdinazko lau barraz lotu zituzten. Ondoren, zementua eta harearria bota zuten denborak desitxuratutako menhirraren zuloetan.



Udazkena Padrobason.

Behin monumentua osaturik, 54 lagun en artean bere lekura itzuli zuten. Harriaren zati bat hasierako posizioan zegoenez –lurrean erdi sartuta–, menhirraren kokaleku eta nora bide zehatza zein zen jakin dute arkeologoek. Horrela, gaur egun duela milaka urte bezalaxe ikus dezakegu; baina operazio horren nahitaezko zauriak –zementuzkoak– ez dizkio likenak estali oraindik.

Errestaurazioaz gain, indusketak ere egin dira Arlobiko lepoan. Suharriko tresnak aurkitu dira eta harrizko eraikin arraro baten aztarnak ere bai. Eraikin hori enigma da oraindik, indusketa kanpaina berriek esango dute zertarako erabili izan zen antzinean. Jakin, ezer gutxi baitakigu menhirren inguruan. Arlobiko lepotik mandazainen bide zahar bat pasatzen da; leku estrategiko horretatik ikus daitezke, alde batean Baias arana eta bestean Austingarmingo saroia –Oderriaga mendiak (1245 m) babesturik–. Garbi dago menhirra ez zutela kasualitatez jarri: erritoak egiteko tresna ote zen? Muga jartzeko seinalea?

**Barandiarani segika**

Austingarminera joateak merezi du. Bertan aurkitzen da Gorbeia beste menhir ezagun bat, Joxe Miel Barandiaranek aski ikertu zuena. Horretarako, Usategieta mendia (1188 m) inguratzea nahikoa da. Artzain txabolak harkaitz artean babesten dira txoko horretan eta haraino ez dira iristen udazkenean basurdetan dabilzan ehizatarien txistuak.

“1922ko maiatzean Gorbeia inguru haiek esploratu nituen (...) Espedizioaren amaieran, Austegarmineko (sic) lepotik pasatzen ari ginela, bide bazterrean harlauza handi bat ikusi genuen”. Barandiaranek ikusitako harri handia Austingarmingo menhirra da. Base-ritarrek antropologoari esan zioten harlauza beste harri batzuen gainean zegoela lehen eta hogeitaz atzera dirua ateratzen zutela hortik: “Inork ez daki nortzuk hartu zuten dirua, ezta

nora eraman zuten ere”. Horregatik, Barandiaranek pentsatu zuen trikuharri baten estalkia zela hura eta ez menhirra, gaur egun bistan den bezala.

Itzultzeko bi modu daude: etorritako leku beretik joatea edo Ubegiko iturburura heldu eta gero, Padrobasonetik barrena abiatzea. Azkenekoa aukeratuz gero tentuz ibili behar da: Padrobason bidea galdu egiten da eta horrekin batera galtzen da bidaiaria. Abentura maite duenak maitatuko du Padrobaso. Hemen koloreak kolore dira eta kobazuloak lapurzulo. Arlobiko zubia berriz ikustean, gauza bakarra egingo du mendizaleak: arnasa hartu. ■

**6,50 m Manioko erraldoia.** Britainian dago, Carnac herri ezagunean, eta munduan zutik dauden menhirren artean handienetakoa da.

**17,23 m Gorbeia Gurutzea.** Burdinazkoa, 1907an jaso zuten hirugarrenez.

**4,80 m Arlobiko menhirra.** Euskal Herriko handiena (Mugarriandi) Elgean dago, eta 5,5 m-ko garaiera du.



**artez**

euskara planak	euskal papergintza	itzulpenak
trebakuntza	bulego materiala	hainbat hizkuntza
hizkuntza aholkularitza osoa	postalak, agendak	zuzenketak, egokitzapenak
enpresak, udalak, merkataritza...	inprimakiak, ziguilak...	teknikoak, komertzialak...

Lezama, 102 • 48014 Oeunty (Bizkaia) • 134 94 448 00 00 • www.artez.net

**JESUSKOA** Nekazalturismoa

OKIA AUZOA • ZUMAITA • jesuskoa@jesuskoa.net  
www.jesuskoa.net